


5.- KANALAK

Eskaintzen dugun zerbitzua bezeroei erakusteko bitartekoa kanalak dira. Honek ere ahalbidetzen du gure enpresaren eta bezeroen arteko harremana eta zerbitzua promozionatzeko. Gure enpresaren kanalak azaldu aurretik, jakin behar dugu zein kanal mota daude:

- **Zuzeneko kanala:** Fabrikatzaileak zerbitzuak zuzenean hornitzen ditu bezeroei.
- **Zeharkako kanala:** Zerbitzuak lehenengo denda txiki bati merkaturatzea, eta, era berean, denda horrek zuzenean kontsumitzaileei saltzea.
- **Selektibo banaketa-kanala:** Mundu osoan gehien erabiltzen den banaketa-moduetako bat eta denda handien bidezko merkaturatzea da.
- **Banaketa intentsiboko kanala:** Ekoizleak denda handi eta txiki bitartekari asko erabiltzen ditu produktua sustatzeko.
- **Industria-ondasunen banaketa-kanala:** Ekoizpen-lekutik azken bezeroenganaino doazen industria-ondasunak dira.

Aldiz, erabiliko ditugun kanalak praktikoki guztiak zuzenak izango dira, hau da, gure enpresak bakarrik eskainiko luke zerbitzu honek. Gure kanalen artean daude:

- Gure zerbitzuak gehien behar diren Euskal Herriko hirian denda fisiko bat irekiko dugu, ez bakarrik gure etorkizuneko bezero posibleak nor garen eta zer egiten dugun jakinaraz dezaten, baizik eta gure zerbitzuak zuzenean eskatu ahal izan dezaten ere. Honetarako, lokal bat erosi edo alokatu beharko dugu.
- Gure kanal nagusiak mundu guztiarentzat eskuragarriak izango dira:
 - App bat izango dugu Play Store-n eta App Store-n egongo dena, batez ere, gure pertsonak zaintzeko zerbitzua



ohikotasunez behar duten bezeroek deskarga dezaten eta horrela bizkorragoa eta errazagoa izan dadila zerbitzua eskatzea. Azkenik, bezeroek kontu bat egin beharko dute aplikazio honetan bere klabearekin, sartu ahal izateko.

- Interneten web orri bat izango dugu non ez da kontu baten beharrik, app-ak ez bezala, zerbitzuak ordenagailuaren bidez eskatu nahi dituztenentzat edo app-a deskargatu nahi ez dutenentzat hainbat arrazoiengatik, adibidez, zaintzeko zerbitzuak normalean behar ez dituztelako. Izan ere, zerbitzu hau behin bakarrik beharko badute, ez dute app-a deskargatu beharrik. Hala ere, web orritik app-a deskargatu ahal izango da, norbaitek deskargatu nahi badu edo ez badaki *Zaintzen* app-a duela.



- Azkenik, uste dugu oso garrantzitsua dela publizitatea erabiltzea kanal bezala gure zerbitzuaren kontsumoa sustatzeko eta bezeroekin komunikatzeko. Honetarako, publizitate mota desberdinak erabiliko ditugu:

- Sare sozial guztietan egingo dugu *Zaintzen* kontu bat, publizitatea egin ahal izateko, eta gure bezeroekin eta bezero posibleekin komunikatu ahal izateko. Horrez gain, sare sozial horiei ordainduko diegu iragarkiak jar ditzaten haien plataforman, erabiltzen duten pertsonen gure enpresa ezagutu dezaten.



- Sare sozialetan publizitatea egiteaz gain, era guztietako pertsonengana iristeko beste baliabide batzuk bilatuko ditugu, hala nola telebista, irratia eta aldizkariak.



- Azkenik, ahoz ahoko publizitatea egongo da, hau da, gure bezeroekin harreman ona ezarriz, beste pertsona batzuei gutaz ondo hitz egitea lortu ahal dezakegu, horrela bezero gehiago lortuz.